

Martin Arzadun

**DOKTRINA
KRISTIANEEN
EXPLIKAZINOA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera*,
Martin de Arzadun. Rielgo da Monteroren Imprentan,
1731

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00713.htm>

DOKTRINA KRISTIANEEN EXPLIKAZINOA EUSKERA;

zein ofrezietan deusten euskaldun gustiai
DON MARTIN DE ARZADUN
Durangoko Uriko Elexetako Benefiziadu, da
Kureak.

Dediketan deuso
Don Nikolas de Etxezarreta da Olasaxarri
jaunari,
Santiago Ordeako Kaballeroari

Urte 1731

Inprimidua Bitoriako Ziudadean
Bartholome Rielgo, da Monteroen Inprentan

DEDICATORIA

AL SEÑOR DON NICOLAS DE ECHEZARRETA Y OLASARRI, CAVALLERO DEL ORDEN DE SANTIAGO

Antigua quexa de Dios es por su Profeta Jermias: *Parvuli petierunt panem, & non erat, qui frangeret eis:* Jerem. Tren. 4. Que los pequeños pedian pan, y no avia quien [...] repartiesse: Y este pan, en sentir del d [...] Laureto, es la Doctrina Christiana: [...] *Padicitur Doctrina Christi.* Verb. Pan. Y esta quexa tan justa de Dios, es el impulso, que me ha movido à dàr à luz publica esta Castillita de Doctrina Christiana en nuestra lengua vulgar, para que no tengan, que quexarse los pequeños de nuestro Basquenze, que no ay quien les reparta el pan de la Doctrina Christiana: *Non erat, qui frangeret eis.* Pues empezando por la Señal de la Cruz, và repartido en sus quatro partes, quales son el Credo, ò Articulos; Pater noster, Mandamientos; y los Sacramentos; y ademàs dos trataditos de la Confesion, y

Comunion, con que deben sustentarse los pequeños.

Su explicacion tan clara, como pide la materia, sus vozen propias, y las mas significativas en nuestro basquenze; pues como enseña San Prospero: Lib. 3. de Vit. Contemp. C. Vlt. las voces dan de ser comunes, segun la propiedad, y estiló para mejore inteligencia de lo que se traza: *Et aperte observata duntaxat usiratorum verborum propietate, res intelligendas enunciat.* Y dirigiéndose toda à la mayor honra, y Gloria de Dlos, pues contiene los mayores Mysterios de nuestra Santa Fè Catholica, và buscando la sombra de Vm. como tan zeloso de ella, de que son testigos, las admirables obras, con que ha adornado esta Iglesia Mayor de Santa Maria, donde recibió la agua del santo Bautismo.

Empeño suele ser de quien dedica alguna obra à algun Heroe, dezir de su grandeza: Sus obras dedicò à Dios, David: *Dico ego opera mea Regi:* y luego comenzò à referir las excelencias de Dios: *Propter veritatem, & mansuetudinem, & iustitiam.* Ps. 44. pero me detiene su modestia, en referir la calificada Nobleza de Vm. tan noto-

ria en este Noble Solar del Señorio de Vizcaya, dexando al silencio, que es el mas rethorico panegirico, que dico Tulio: *Dun tacens clamans;* Tul. de Iudic. y porque le sobran prendas personales, para ennoblecer muchos linages, como lo afirma Venantio L. 2. Carni.9. *Sed quandò altum teneat de stirpe cacumem, moribus ipse amplificavit avos.* Suplico à Vm. rendidamente reciba esta pequeña ofrenda mia, para que sea grande, saliendo debaxo de su nombre; assi lo espero, y ruego à Dios en mis sacrificios guarde, y prospere à Vmd. en su gracia.

Su mas reconocido, y favorecido Capellan,
D. Martin de Arzadun

**APROVACION
del M.R.P.Fr. Benito de Ibarreche
del Orden de San Francisco,
Lector Jubilado,
Ex-Difinidor, y Vice-Provincial
de la Santa Provincia de Cantabria**

Por comission del Señor Licenciado D. Pedro de la Quadra y Achiga, Provisor, y Vicario General de este Obispado de Calahorra, y la Calzada, y Canonigo de la Santa Iglesia de Calahorra, he leido con gustosa atencion, la Explicacion de la Doctrina Christiana, que ofrece à todos los Bascongados en Idioma del Basquenze D. Martin de Arzadun, Cura, y Beneficiado en las Parrochiales de la Villa de Durango, y veo en un volumen pequeño expressadas con claridad debida al estudio, piedad, y zelo Christiano del Author, las grandezas mas excelentes y necessarias de nuestra Santa Fè, satisfaciendo como supone en su Dedicatoria, à la antigua, y amorosa quexa del Profeta Jeremias en el Capitulo quarto de sus Trenos: *Parvuli petierunt panem, & non erat, qui frangeret eis:* Pues se vè en esta obra compen-

diosa comunicado el pan misterioso de la Doctrina Christiana, no entera, y de forma, que no pueda servirles de espiritual alimento; si dividido, y repartido en las quatro misteriosas partes, cuya noticia, y clara inteligencia obliga à todo Christiano, para poder conseguir el vltimo fin de la eterna Bienaventuranza; y siendo la obra tan necesaria, assi para la educacion de los niños, como para el magisterio de los Señores Parrochos, por los pocos Libros de Doctrina Christiana, que en este País se hallan escritos en el idoma; llevando este la recomendacion de su Author notoriamente conocido por los muchos sermones, que con toda erudicion, y subtileza Christiana predica en dicho Idioma, sin faltar al principal empleo de Parrocho en la explicacion continuada de la Doctrina Christiana; por esto, y por no contener cosa, que contradiga à nuestra Santa Fè, y buenas costumbres, soy de parecer, de que se le conceda la licencia, que pide, para que salga à la luz publica: Salvo, &c. En este Hospicio del Convento de Religiosas de San Antonio de Durango à 16 de Abril de 1731.

Fr. Benito de Ibarreche

APROBACION

del M.R.P. Fray Juan de Ascondo del Orden de San Agustin, Maestro de la Orden

Por orden, y comision del Señor Licenciado D. Pedro de la Quadra y Achiga, Provisor, y Vicario General de este Obispado de Calahorra, y la Calzada, y Canonigo de la Santa Iglesia de Calahorra, he visto vn libro intitulado: Explicacion de la Doctrina Christiana en Basquenze, su Autor Don Martin de Arzadun, Cura, y Beneficiado de las Iglesias vndas de la Villa de Durango: He reparado en la letra, que descubre con sutileza, la medula de los mysterios mas escondidos de nuestra Santa Fè; de suerte, que se le puede aplicar lo que dico San Geronymo à San Paulino: *Librum doctissime, ornatissimeque compossum libenter legi. In eo nihil mediocre, totum sumnum, totum perfectum est; sed ipsum genus elequij presum est, & nitidum, nitet quidem, & fulget etiam in cortice, sed dultius in medulla est.* Soy de sentir, que es convenientissimo se dè

à la imprenta, para la comun vtilidad, y provecho. Este es mi dictamen, salvo meliori &c. En este Convento de N.P. S. Agustin de la Villa de Bilbao, Abril 19 de 1731.

Fr. Juan de Ascondo

LICENCIA DEL ORDINARIO

Nos el Licenciado D. Pedro de la Quadra y Achiga, Canonigo de la Santa Iglesia de Calahorra, Provisor, y Vicario General de este Obispado de Calahorra, y la Calzada, por el Illustrisimo Señor D. Joseph de Elpejo y Cisneros, mi Señor, Cavallero del Orden de Santiago, Obispo del dicho Obispado, del Consejo de su Magestad &c. Por las presentes, y por lo que à nos toca, damos licencia en forma, para que sin incurrir en pena alguna se pueda imprimir, è imprima la Cartilla compuesta sobre la explicacion de la Doctrina Christiana en lengua Bascongada, por D. Martin de Arzadun, Cura, y Beneficiado de las Parroquiales de la Villa de Durango, para que conforme à èl, la enseñen los Maestros à los Fieles; en

atencion, à que aviendose visto, y examinado en
virtud de nuestra orden, y mandato, nos consta
no contener cosa alguna opuesta à nuestra
Santa Fè Catholica, y buenas costumbres. Dada
en la Ciudad de Logroño, à 26 de Abril de 1731.
años.

Licdo. D. Pedro de la Quadra y Achiga
Por mandato del Señor Provisor:
Matheo Garzia de Zarate

DOKTRINA KRISTIANEEEN

ORAZINOAK

Guruze Santeen + señaleagaiti; geure arerio-
etarik + libradu gaguzuz; geure Jauna + da Jaun-
goikoa; Aitien, da Semien, da Espiritu Santuen
izenean. + Amen Jesus.

KREDOA

Credo in Deum. Sinisetan dot Jaungoiko Aita
gutziz poderosoagan, Zeuren, da Lurren Kriado-
reagan: Da Jesu-Kristo bere Seme bakar geure
Jaunagan, zein sortu zan Espiritu Santuagañik,
da jaio zan Maria Birjineagañik: Padezidu eban
Ponzio Pilatosen poderen bean: Izan zan kruzifi-
kadua, ila, da sepultatua: Jasi zan Infernuetara;
Da irugarren egunean erresuzitadu zan ilen arte-
rean: Igo eban Zeruetara, da dago jasarririk Aita
Jaungoiko gutziz poderosoen alde eskumatari:
Arean etorriko da ilak, da biziak juzgaetan: Sini-
setan dot Espiritu Santuagan, Elexa Santa Kato-

likea, Santuen Komunioa, Pekatuen pakazinoa, Aragien erresurrezinoa, da Sekulako bizitzea. Amen Jesus.

ARTIKULUAK

Fedeko Artikuluak diraz amalau; Lelengo zazpirak pertenezieta jakaz Jaunen Dibinidadeari, da beste zazpirak Kristoen humanidade Santeari: Dibinidadeari pertenezieta jakazanak diraz onek: Leleengoa sinistu, Jaungoikobaren guztiz poderosoagan. Bigarrena sinistu, dala Aitea. Irugarrena sinistu, dala Semea. Laugarrena sinistu, dala Espiritu Santua. Bostgarrena sinistu, dala Kriadorea. Seigarrena sinistu, dala Salbadorea. Zazpigarrena sinistu, dala Glorifikadorea.— Humanidadeari pertenezieta jakazanak diraz onek: Leleengoa sinistu, Jesu-Kristo geure Jauna, gizona zan partez, sortu zala Espiritu Santuen birtutez. Bigarrena sinistu, jaio zala Mari Birjiñea-gañik, Donzella zala Semea jaio baño lenago, jaiakeran da jaio ezkerro. Irugarrena sinistu, artu ebala pasinoa, da eriotza gu bekatariok salbeta-ren. Laugarrena sinistu, jasi zala Infernuetara, da atera zitzuzala arima Aita Santuenak, begira

gozanak bere etorrera santuari. Bostgarrena sinistu, irugarren egunean bizitu zala ilen arte-rean. Seigarrena sinistu igo ebala Zeruetara, da abarririk dagoala Aita Jaungoiko guztiz poderosoen alde eskumatati. Zazpigarrena sinistu, etorriko dala Juizioko egunean, juzgaetan biziak, da ilak, onai emaiten bere gloria gorde zituezalako bere Mandamentuak, da gestoai sekulako penea ez zituzalako gorde. Amen Jesus.

PATER NOSTERRA

Pater Noster. Aita Gurea Zeruetan zagozana, santifikadu dila zure izena. Betor geugaña zeure Erreñua. Egin bidi zeure borondatea, zelan Zeruan, alan Lurrean. Geure ogi egunean egunearangoa egun iguzu. Parkatu egiguzuz geure zorrak, zelan geuk parketan deustegun geure zordunai. Itxi ez egiguzu jausten tentazinoan. Baia gagizuz Jauna gatxerean libradu. Amen Jesus.

ABE MARIA

Abe Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz. Bedenkatea zara zu andra guztien artean. Da

bedenkatua da zeure sableko frutua, Jesus. Santa Maria Jaungoikoaren amea, erregutu egizu gu bekatariokgaiti, orain, da geure eriozako orduan. Amen Jesus.

SALBE ERREGINA

Salbe Erregina, Erregina, da Ama miserikordiazkoa, bizizea, da dulzurea: Salbe esperanza geurea, zeure deiez gagoz Ebaren seme desterraduok, zeugaña gagoz zizpuruka, llantu, da negar egiten dogula negarrezko erri onetan. Ea bada Abogada geurea, biortu egizuz geugaña, zeure miserikordiazko begiok. Da desterrun irago ezkerro, erakuskuzu Jesu-Kristo, zeure sableko frutu bedenkatua. O Klementiazko Ama! O Piadosea! O Dulze beti Birjina Maria, Jaungoikoaren Ama Santea, erregutu egizu geugaiti, merezidu daiguzan Kristoen prometimentuak. Amen Jesus.

AMAR MANDAMENTUAK

Jaungoikoaren legeko Mandamentuak, diraz amar. Leleengo irurak pertenezietan akaz Jaungoikoen honrarei, da beste zazpirak proximoen

probetxuari. Leleengoa, Jaungoikoa ametea gauza guztien ganean. Bigarrena ez Juramentu-rik egitea nezesidate baga. Irugarrena, Domekak, da Jaiak gordetea. Laugarrena, Aita, da Ama honretea. Bostgarrena, ez iñor iltea. Seigarrena, ez aragiazko pekaturik egitea. Zazpigarrena, ez iñori ezer onstutea. Zorzarren, ez falso testi- moniorik iñori ezartea, ez guzurrik esatea. Bederazigarrena, ez iñoen senarrik, ez emazterik desietea. Amargarrena, ez iñoen gauzarik desie- tea. Amar Mandamentu oneek enzerretan diraz bitan, Jaungoikoa ametan gauza guztien ganean, da proximoa bere burua legez. Amen Jesus.

BOST MANDAMENTUAK

Ama Elexa Santen Mandamentuak diraz bost. Leleengoa, Meza osoa enzutea Domeketan, da Jaietan. Bigarrena, Konfesetea edolabere urtean bein, edo lenago eriozako pellibururik bada, edo komulgaduko bada. Irugarrena, Komulgetea Pasko Erresurrezinokoetan. Laugarrena barau egitea Ama Elexa Santeak aginetan dabenean. Bostgarrena, amarrenak, da primiziak pagetea. Amen Jesus.

ZAZPI SAKRAMENTUAK

Ama Elexa Santen Sakramentuak diraz zazpi. Leleenga, Bautismoa. Bigarrena, Konfirmazioa. Irugarrena, Penitenzia. Laugarrena, Komuniñoa. Bostgarrena, Oleazinoa. Seigarrena, Ordea Sazerdotala. Zazpigarrena, Matrimonioa. Amen Jesus.

KRISTINAUEN SEÑALEA ZEIN DAN KURUZE SANTEA

Izanik Kristinauen señalea Kuruze santea, dalako Kristo Kruzifikaduen figurea, zeinetan erredimidu ginduzan bere odol preziobakoagaz, bear dau jakin egiten señaleau, zeñatuten dala, da santigetean dala ondo.

EXPLIKETAN DA ZEÑATUTEA, DA SANTIGETEA

P. Zer da Zeñatutea?

R. Egitea iru Kuruze eskumako eskuko orkorroagaz, da urrengo azagaz ifinirik kuruzez, beste iru azak geldietan diriala artez.

P. Nun eingo diraz iru Kuruzeok, da ze berbagaz?

R. Leleengoa, bekoki ganerik sur puntara, da bekokien ezkerreko alderik eskumakora, esaten dala; Kuruze Santeen + señaleagaiti: Bigarrena, sur puntarik okozera, da ahoen ezkerreko alderik eskumakora, esaten da; Geure arerioetarik, + libradu gagiguz: Da irugarrena, okozerik bularerra, da ezkerreko solbardarik eskumakora esaten dala; Geure Jauna, + da Jaungoikoa.

P. Zergaiti egiten diraz iru Kuruzeok beokian, ahoan, da bularrean?

R. Bekokian, Jaungoikoak gorde gagizan pensamentu deungetarik; Ahoan, gorde gagizan berba deungetarik; da bularrean obra deungetarik.

P. Zer da Santigetea?

R. Egitea Kuruze bat, eskumako eskuko bost azakaz, ifinten diriala artez.

P. Nun eingo da Kuruzean, da ze berbagaz?

R. Bekokirik bularrera, da ezkerreko solbardarik eskumakora, esaten dala bekokian, Aitien; bularrean, da Semien; da ezkerreko solbardarik eskumakora, da Espiritu Santuen izanean. + Amen Jesus.

P. Nos egin bear da Kuruze Santeen señaleau?

R. Obra on bat asiten dogunean, nezesidate, tentazino, da pellibururen baten aurkietan garianean.

P. Nos geiago?

R. Etxun, da jaigi oerik egiten dogunean; sartu, da urten etxerik egiten dogunean; jan, da edaten asiten garianean; da Elexan sartutenean garianean.

P. Zegaiti ainbat bider?

R. Zegaiti beti, da leku guztietan jarraituten jakuzan gatxerako geure arerioak.

P. Zeintzuk diraz geure arerioak?

R. Demoninoa, Mundua, da Aragia.

P. Da zelan adoretan da Kuruze Santea?

R. Onelan; Adoretan da, bedenketan zaitudaz Kuruze Santea, Jesu-Kristo geure Jaunak, zeugan

artu ebalako eriozea mundu guztia erredimieta-rren.

DOKTRINA KRISTIANEEN EXPLIKAZINOA BERE LAU PARTEAKAZ

Doktrina Kristianea ezta beste gauzarik, ezpada Jesu-Kristo geure Jaunak itxi kuskuzan misterio andiak, erakusteko geuri Zeruko bidea; da alan datorrenean Kristinaua errazoien ezauarira, bear dituz jakin lau gauza: Leleengoa, zer sinistu bear daben; Bigarrena, zer efektu bear daben; Irugarrena, zer egin bear daben; Laugarrrena, zer artu bear daben.

LELENGO PARTEA

Leleengo gauza bear dabena jakin Kristinuak da, zer sinistu bear daben, da au jakiten da, jakinaz Kredoa, edo Fedeko amalau Artiku-luak.

EXPLIKETAN DIRAZ DIBINIDADEKOAK

*Leleengoa sinistu,
Jaungoiko baten
gutziz poderosoagan.*

P. Zer da Jaungoikoa?

R. Jaungoikoa da, gorputzako Espiritu bat, gauza ain admiretakoa, zein ezin pensadu leian nolangoa dan, Jaun bat finbagarik poderosoa, Santua, Sabioa, perfekzino guztien jabea, da gauza guztien [...], da prinzipioa.

P. Nun dago Jaungoikoa?

R. Zeruan, Lurrean, da leku guztietan.

P. Zelan da Jaungoikoa guztiz poderosoa?

R. Bere borondateagaz, egiten dabelako gura daben guztia.

P. Zeinbat Jaungoiko diraz?

R. Bat Jauna.

P. Zeinbat Persona?

R. Iru Jauna.

P. Zelan deretxe?

R. Aita, Semea, da Espiritu Santua.

P. Diraz iru Personak iru Jaungoiko?

R. Ez Jauna, ezpada Jaungoiko egiazko bat.

P. Zein da iru Personetarik, gazteago, zarra-go, edo lenago?

R. Ez bata, ez bestea Jauna; ezpada irurak bat, da berdinak gauza guztietan.

*Bigarrena
sinistu, dala Aita.*

P. Aitea Jaungoikoa da?

R. Bai Jauna.

P. Aitea nogaiñik dau izaitea?

R. Ez inogañik Jauna; ezpada beragañik.

*Irugarrena
sinistu, dala Semea.*

P. Semea Jaungoikoa da?

R. Bai Jauna.

P. Semeak nogaiñik dau izaitea?

R. Aiteagañik Jauna.

*Laugarrena
sinistu, dala Espiritu Santua.*

P. Espiritu Santua, Jaungoikoa da?

R. Bai Jauna.

P. Espiritu Santuak nogañik dau izaitea?

R. Aiteagañik, da Semeagañik Jauna.

*Bostgarrena
sinistu, dala Kriadorea.*

P. Zelan da Jaungoikoa Kriadorea?

R. Egin zituzalako gauza guztiak ezer[...] bere ezereanik.

*Seigarrena,
sinistu, dala Salbadorea*

P. Zelan da Jaungoikoa Salbadorea?

R. Emaiten dabelako grazia, da parkatuten dituzalako pekatuak.

*Zazpigarrena,
sinistu, dala Glorifikadorea*

P. Zelan da Jaungoikoa Glorifikadorea?

R. Emaiten dabelako gloria bere grazian ilten dirianai.

P. Zeinbat Salbadore diraz?

R. Bat Jauna.

P. Zeinbat Glorifikadore diraz?

R. Bat Jauna.

Kriadore bat, Salbadore bat, da Glorifikadore bat.

EXPLIKETAN DIRAZ HUMANIDADEKOAK

*Leleengoa sinistu,
Jesu-Kristo geure Jauna,
Gizona zan partez,
sortu zala Espiritu Santuen birtutez.*

P. Nun sortu zan Jesu-Kristo geure Jauna?

R. Maria Birjinen sabel santan Jaunan.

P. Iru Personetarik, zein egin zan Gizon?

R. Bigarrena Jauna, zein dan Semea, zeini Gizon eginik, deretxan Jesu-Kristo, Jaungoiko, da Gizon egiazkoa.

P. Nolan sortu zan Birjinen sabel santan?

R. Ez Gizonen obraz Jauna; ezpada egin eban Jaungoikoak Birjinen odol garbiagaz gorpuz bat, da kriadu eban arima perfekta bat, da gero Trindadako bigarren Personean batu, edo bat egin zan gorpuz, da arima onegaz, geretan zala leen Jaungoiko zana, Gizon bere eginik.

*Bigarrena sinistu,
jaio zala Mario Birjinagañik,
Donzella zala Semea jaio baño lenago,
jaiakeran, da jaio ezkero.*

P. Bauko Jesu-Kristok Aitarik, Gizona dan partez?

R. Ez Jauna; ezpada Ama, zein da Maria Santisimea.

P. Bauko Jesu-Kristok Amarik, Jaungoiko dan partez?

R. Ez Jauna; ezpada Aita, zein dan Aita Eternoa.

*Irugarrena sinistu,
artu ebala pasinoa da eriozea
gu bekatariok salbatzearren*

P. Nun artu eban pasinoa, da eriozea?

R. Kuruze Santan Jauna.

P. Il bazan Jesu-Kristo Jaungoiko zan partez?

R. Ez Jauna; ezpada Gizona dan partez.

*Laugarrena sinistu,
jasi zala Infernuetara,*

*da atera zituzala arima Aita Santuenak,
begira egozanak bere etorrera santuari*

P. Ze Infernutara jasi zan il ezkero Jesu-Kristo?

R. Linbora Jauna, non egozan Aita Santuen arimak.

P. Bere arimea, ala gorpuza jasi zan Linbora?

R. Arimea Jauna, bere Dibinidadeagaz baturik.

P. Nun geratu zan bere gorpuza?

R. Sepulturan Jauna, bere Dibinidadeagaz baturik.

*Bostgarrena sinistu,
irugarren egunean bizitu zala
ilen artorean*

P. Zelan bizitu zan Jesu-Kristo geure Jauna?

R. Biortuten zala bere arima santea, bere gorpuzera, ez geiago ilteko.

*Seigarrena sinistu,
igo ebala Zeruetara,
da jasarririk dagoala Aita Jaungoiko
gutziz poderosoen alde eskumatati*

P. Zelan igo eban Jesu-Kristo geure Jaunak Zeruetara?

R. Bere poderio, da birtutez Jauna.

P. Zegaiti esaten da, dagoala jasarririk Aita Jaungoiko guztiz poderosoen alde eskumatati?

R. Jaungoiko dan partez, daukalako Gloria bardina Aiteagaz, da Espiritu Santuagaz; da Gizona da partez, beste Kriatura guztiak baño geiago.

*Zazpigarrena sinistu,
etorriko dala Juizioko egunean
juzgaeten biziak, da ilak,
onai emaiten bere Gloria,
gorde zituezalako bere Mandamentuak,
da gestoei sekulako penea,
ezituezalako gorde*

P. Juizioko egunean guztiok biortuko gara bizi izaitera?

R. Bai Jauna; orain daukaguzan gorputz, da arimakaz.

P. Zetarako bizituko gara egun onetan?

R. Kontu emaiten Jauna, pensadu, esan, da egingo doguzan gauza guztien.

P. Onezaz osteranzean, zer sinistu bear da?

R. Ondoan dagozan gauza bi, zeinzuk dirian; dagoala Elexa Santa Katolikea, da Santuen Komunioa.

P. Zer da Elexa Santea?

R. Kristinau fiel guztien gorputz bat, zeinen burua Zeruan, da Jesu-Kristo; da Lurrean bere Bikarioa legez Aita Santu Erromakoa.

P. Zer da Santuen Komunioa?

R. Dagozala Elexan Santuak, da grazian idaraiten dirianak daukela parte mundu guztian egiten dirian obra on guztietan.

BIGARREN PARTEA

Bigarren gauza bear dabena jakin Kristinuak, da zer eskatu bear daben; da au jakiten da, jakinaz Pater Nosterra, da beste orazinoak.

PATER NOSTERREN EXPLIKAZIOA

*Leleengo petizinoa da,
santifikadu dila zeure izena*

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Jaungoikoen izena izan daiezala[...] ezau-na, da amadua mundu guztian.

*Bigarrena, betor geugaña
zeure Erreñua*

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Egon deiteala ain Magestadea geugan grazia, da gero emon deigula bere Gloria.

*Irugarrena,
egin bidi zeure borondatea,
zelan Zeruan, alan Lurrean.*

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Egin daigula Jaungoikoen borondatea lurrean gagozanok, egiten dabena legez Zeruan dagozanak.

*Laugarrena: Geure ogi
egunean eguneangoa,
egun iguzu*

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Emon deigula gorpuzerako ogia, da arima-rako grazia, da Sakramentuak.

Bostgarrena, parkatu egiguzuz

geure zorrak, zelan geuk

parketan deustegun geure zordunai

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Parkatu deiguzala Jaungoikoak geure pekatuak, zelan geuk parketan deustegun gatx egiten deuskuenai.

Seigarrena, itxi ez egiguzu

jausten tentazinoan

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Eztegigula itxi jausten tentazinoan, ez konsentietan pensamentu deungetan, zeinzukaz gura daben demoninoak jausi gaitezan pektuan.

Zazpigarrena, gagiguz

Jauna gatxerean libradu

P. Zer eskatuten da petizino onetan?

R. Libradu gagizala gatx, da pelliburu guztietarik, alan arimakoetarik, zein gorpuzetakoetarik.

P. Zeinzuk diraz beste orazino jakingo dirianak?

R. Abe Maria, da Salbea, egiteko orazino Birjina Santisimeari, da mesedeak eskatuteko.

P. Abe Maria, da Salbea esaten doguzanean, nogaz egiten dogu berba?

R. Birjina Santisimeagaz.

P. Nor da Birjina Santisimea?

R. Jaungoikoen Ama Santea, grazia, da birtutez betea, da Zeruko Erregina.

IRUGARREN PARTEA

Irugaren gauza bear dabena jakin Kristinuak da, zer egin bear daben, da au jakiten da, jakinaz Jaungoikoen legeko amar Mandamentuak, da Elexako bostak.

AMAR MANDAMENTUEN EXPLIKAZINOA

*Leleengo Mandamentua da,
Jaungoikoa amatea,
gauza guztien ganean*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Jaungoikoa ametan eztabena, beragan sinistuten eztabena, Jaungoiko falsoetan sinistuten dabena, da sorginkeria, da etxizerietan dabi-lean.

*Bigarrena, ez juramenturik
egitea nezesidade baga*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Jaungoikoa testiguzat dakarrena, egia baga, justizia baga, da nezesidade baga.

*Irugarrena, Domekak,
da Jaiak gordetea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Meza osoa enzuten eztabena, da nezesida-de baga bearra egiten dabena.

*Laugarrena,
Aita, da Ama honretea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Gurasoa obedezidu, sokorridu, da errebe-renzietañ eztabena, da nagusiagoak edadean, da dignidadean.

*Bostgarrena,
ez iñor iltea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Proximoari gatx egiten deustana [...] berbeagaz, obreagaz, da deseoaagaz.

*Seigarrena, ez aragiazko
pekatutik egitea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Garbi eztana obretan, berbetan, da pensamentuetan.

*Zazpigarrena,
ez iñori ezer onstutea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Iñoen hazienda keduten dabena, daukan, da gura dabena jaubien borondatien kontra, da estalduten dabena.

*Zortzigarrena, ez falso testimoniorik
iñori ezartea, ez guzurrik esatea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Honrea kenduten dabena, gauza ixila ager-tutuen dabena, da guzurra esaten dabena.

*Bederatzigarrena,
ez iñoen senarrik,
ez emazterik desietea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Deseo loiak daukazana iñoen senar, da emazteakaz.

*Amargarrena,
ez iñoen gauzarik desietea*

P. Nor doa Mandamentu onen kontra?

R. Desietan dabena iñoen haziendea, da kontentetan eztana daukanagaz.

BOST MANDAMENTUEN EXPLIKAZINOA

*Leleengo Mandamentua da,
Meza osoa enzute Domeketan, da Jaietan*

P. Zer da Mezea?

R. Jesu-Kristo geure Jaunen biziza, pasino, da eriozen memoria bat.

P. Zelan enzun bear da Mezea?

R. Atenzino, da debozino andiagaz.

*Bigarrena, Konfesetea
edolabere urtean bein,
edo lenago eriozako pellibururik bada,
edo Komulgatuko bada*

P. Zer da Konfesetea?

R. Pekatu guztiak konfesetea bat bere itxi
baga, biozko damuariagaz, da propositu fir-
meagaz, ez geiago egiteko.

*Irugarrena, Komulgetea
Pazko Erresurrezinokoetan*

P. Komulgetan danak zer artuten dau?

R. Jesu-Kristo Jaungoiko, da Gizon egiazkoa,
bere gorpuza, odola, arimea, da Dibinidadea.

*Laugarrena, barau egitea
Ama Elexa Santeak
aginetan dabenean*

P. Norzuk dauke obligazinoa barau egiteko?

R. Ogetabat urteoso daukenak, irurogei urte-
gino.

P. Norzuk eztau ke obligazinoau?

R. Gezorik dagozanak, da bearra egiten dabenak.

*Bostgarrena, amarrenak,
da primiziak pagetea*

P. Zelan pagaduko diraz amarren, primiziak?

R. Artuten diriana legez, onerik, da deunigarik.

LAUGARREN PARTEA

Laugarren gauza bear dabena jakin Kristinuak, da zer artu bear daben, da au jakiten da [...], jakinaz Elexako zazpi sakramentuak.

ZAZPI SAKRAMENTUEN EXPLIKAZINOA

*Leleengo Sakramentua da,
Bautismoa*

P. Zer da Bautismoa?

R. Kenduten dabena pekatu orijinala, da mortal idaraiten dirianak Bautizetan danean.

*Bigarrena,
Konfirmazinoa*

P. Zer da Konfirmazinoa?

R. Emaiten deuskuna indarra Fedean, zein artu genduan Bauptismoan.

*Irugarrena,
Penitenzia*

P. Zer da Penitenzia?

R. Kenduten dituzana pekatu mortal, da benial, eginak baupertizadu ezkero.

*Laugarrena,
Komuninoa*

P. Zer da Komuninoa?

R. Arimako jatekoa, emaiten dabena biziza betikoa.

*Bostgarrena,
Oleazinoa*

P. Zer da Oleazinoa?

R. Kenduten dituzana pekatu parkatuen, mantxak, ematen dabena indarra demoninoen

tentazinoen kontra, da gorpuzeko osasuna bear
bada.

Seigarrena,

Ordea Sazerdotala

P. Zer da Ordea Sazerdotala?

R. Emaiten dabena podere, da grazia Sazer-
doteari konsagretako, da absolbietako pekatue-
tarik.

Zazpigarrena,

Matrimoninoa

P. Zer da Matrimoninoa?

R. Emaiten dabena grazia ezkonduai, alkarre-
gaz ondo biziteko, da Semeak Zerurako aziteko.

Oneek diraz Doktrina Kristianeen lau gauzak, zeinzuk bear dituzan jakin Kristinauak, datorre-
nean bere errazoien ezauarira, da ezpadakiz
bere erruz, da ikasi ezpadagiz joango da Infernu-
ra.

SAKRAMENTU SANTU KONFESINOKOEN GANEAN

Itxi eskun Jesu-Kristo geure Jaunak Elexa Santan, Sakramentu Santu Konfesinokoa, parkatuteko pekatu guztiak, konfesietan diriala ondo; da Konfesino egiazko batek, bear dituz euki iru gauza; Leleengoa, ahoko Konfesinoa; Bigarrena, biozeko Kontrizinoa; Da irugarrena, obrien satisfazinoa; da ezpadaukaz iru gauzok, Konfesinoa izango da deungea.

EXPLIKETAN DIRAZ

*Leleengoa da,
ahoko Konfesinoa*

P. Zer da ahoko Konfesinoa?

R. Konfesetea pekatu guztiak bat bere itxi baga, eurak diriana legez, euren zirkunstanzia guztiakaz, egiten dala lenago konzienziako examina bear dana.

P. Zer da konzienziako examinea?

R. Ekartea memoriara egin direan pekatu guztiak azkerengo Konfesinorik, pensetan dala

Mandamentuetati, ze lekutan egon dan, ze persona gozaratu [...] daben, da ze ofizio euki daben.

P. Zeinbat denpora bear da egiteko?

R. Sarri konfesetan danendako gutxiako, berandu konfesetan danendako baño.

Bigarrena da,

biozeko Kontrizinoa

P. Zer da bizozeiko Kontrizinoa?

R. Biozeiko damuari bat ofendidu dalako Jaungoikoa.

P. Zeinbat diraz damuariok?

R. Bi; Kontrizinokoa, da Atrizinoa.

P. Zer da Kontrizinoa?

R. Pekatuen damuari bat ofendidu dalako Jaungoikoa, izanik ain ona.

P. Zer da Atrizinoa?

R. Pekatuen damuari bat ofendidu dalako Jaungoikoa, da ezarri leialako Infernura.

P. Damuari bioetarik, zein bear da konfesinorako?

R. Onena da Kontrizinokoa, baia asko da Atrizinokoa, propositu firmeagaz, ez geiago ofendie-

tako Jaungoikoa, apartetan dala pekatuen okasi-no guztietarik, da pelliburo guztietarik.

*Irugarrena da,
obrien satisfazinoa*

P. Zer da obrien satisfazinoa?

R. Pagetea mundu onetan Konfesoreak emai-ten daben penitenciagaz, pekatu parkatuen pena zor dana bestean.

P. Nos egin bear da penitenzia?

R. Nos aginetan daben Konfesoreak, da ezpa-bere ainbat lasterren.

P. Da zer egin bear da Konfesinoko egunean?

R. Gauzaren batzuk, da guztiak errazak.

EXPLIKETAN DIRAZ

P. *Leleengo zeintzuk?*

R. Oneek Jauna: Janzirik garbitasun, da dezenziagaz joan Elexara, da belauniko esan orazinoan debozino andiagaz.— Jaun, da Jaungoiko guztiz poderosoa, da gura dozuna guztien salbazinoa; erregututen deusut humildade andiagaz, emon deidazula entendimentuko argia, ezautu daidazan neure kulpa, da pekatu

andiak, konfesetako guztiak bat bere itxi baga biozeko damuari andiagaz, da egiteko eurakgaiti zispuru, negar, da penitenzia. Alan itxaraiten dot Aita miserikordiaz betea; da zeure Seme, Jesu-Kristo, geure Jaunen merezimentu andiagaiti, zein il zan Kuruzean guztiok salbetarren, alkanzaduko dodala guztien parkazinoa.

P. Bigarrengo zeinzuk?

R. Oneek Jauna: Egin ezkero konzienziako examinea, joan Konfesorien oñetara, da belauniko egin Kuruze Santeen señalea; esan Konfesiona, Ni bekatariau, &c. konfesadu pekatu guztiak bat bere itxi baga, losarik, bildurrez, ez mali-ziaz, euren zirkunstanzia guztiakaz, da damuari, da propositu firmeagaz, ez geiago ofendietako Jaungoikoa; da gero artu borondate osoagaz, Konfesoreak emaiten deusan penitenzia; da absoluzinoa arzen daben artean, egin biozetik Akto Kontrizinokoa. Neure Jesu-Kristo Jauna, &c.

P. Irugarrengo zeinzuk?

R. Oneek Jauna: Jaigirik Konfesorien oñetarik, esan belauniko orazinoau debozino andiagaz.— Neure Jaungoiko, Kriadore, da Erredenptorea, bizien, da ilen Juez arteza, zeure merezimentu

andiakgaiti, erregututen deusut humildade andiagaz, Konfesino egin dodanau, artu daizula zeure grazian, da egin ezpadot bear dana legez, neure memoria laburragaiti, edo biozeko damuari gitxiagaiti parkatu deidazula, bada gura neuke izan baliz guztiz ona; da itxaraiten dut zeure miserikordia andian, geratu nasala, neure pekatu guztien parkazinoagaz: Da emaiten deusudaz grazia andiak, emon deustazulako denporea konfesetako, da orain emon egidazu grazia, ez geiago zaidazan ofenditu.

SAKRAMENDU SANTU KOMUNINOKOEN GANEAN

Sakramentu Santu Altarakoan ifini zituzan Jesu-Kristo geure Jaunak, bere amudioen ondasun guztiak; da beste Sakramentuetan emauten baiaku bere grazia emen grazien jaubea bera, Jesu-Kristo geure Jauna.

EXPLIKETAN DA

- P.** Zer dago Sakramentu Santu Eukaristiakoan?
- R.** Jesu-Kristo Jaungoiko, da Gizon egiazkoa.
- P.** Nos ifinten da Jesu-Kristo, hostian, da kalizan?
- R.** Sacerdoteak berba konsagrazinokoak esan daizanean.
- P.** Hostia konsagrauan bago Jesu-Kristoen gorputza?
- R.** Bai; da dana legez gorpuz bizia, dago bere odola, arimea, da Dibinidadea.
- P.** Kalizan bago Jesu-Kristoen odola?
- R.** Bai; da dagoana legez baturik gorpuzagaz, dago bere gorputza, arimea, da Dibinidadea.
- P.** Hostian, edo Kalizan bago ogirik, edo ardaurik?
- R.** Bapere ez, Sacerdoteak konsagrau ezkero.
- P.** Partietan danean Hostia, partietan da Jesu-Kristo?
- R.** Ez; da ain osorik dago parterik txikarrenean, zein andienean.
- P.** Hostia andia, edo txikarra artuten dabenak, artuten dau grazia geiago?

- R. Biak bardin; bada Hostia andian, zein txikarrean, dago Jesu-Kristo bera.
- P. Zer bear da Komulgetako bear dana legez?
- R. Arimako garbitasuna, da gorpuzeko dezenzia.
- P. Komulgetan danak ondo, zer artuten dau?
- R. Betiko bizizea.
- P. Komulgetan danak deungaro, zer artuten dau?
- R. Betiko eriozea.
- P. Da zer egin bear da komulgauko dan egunean?
- R. Gauzaren batzuk, da guztiak errazak.

EXPLIKETAN DIRAZ

P. *Leleengo zeinzuk?*

R. Oneek Jauna; janzirik garbitasun, da dezenziagaz, da baraurik joan Elexara, da belau-niko esan orazinoau debozino andiagaz.— Neure Jauna, da Jaungoikoa: Izan arren bere neure atrebimentua andia, elzen zeu erreuibietan, izanik zeu zareana, da neu nasana, eldutenas dakidala-ko gura dozula zeuk, da humildade, da bildur santu bear dana ezpadaukat, asistidu egidazu

guztiagaz, bada gura neuke euki neure bioza, ain garbi, zein Maria Santisimeak, zeu errezibie-tarako; Da alan, erreguten deusudana legez itxaraiten dot, artuko dodala Sakramentu onegaz bere grazia, da birtutea, da ikusiko zaitudazala Zeruan, adoretan zaituzala Kriatura guztiak.

P. Bigarrengo zeinzuk?

R. Oneek Jauna; Konzienzia garbiagaz, peka-tu mortal baga joan komulgetan, errezibidu Jaun Sakramentadua debozino, da bildut santuagaz, gelditu emaiten grazia andiak Jaungoikoari egin deusan mesede andiagaiti, da esan orazinoau debozino andiagaz.— Grazia, da alabanza andiak emaiten deusudaz neure Jesu-Kristo Jauna, bada izan arren bere neu ain bekatari andia, euki dozu onzat neuk errezikietea merezidu baga zeure gorpuz santua: Supliketan deusut neure Jauna, da Jaungoikoa, eztaiteala izan Komuninoau neure erruz, neure kondemnazarako, ezpada zeure miserikordia andiagaiti, neure pekatu guz-tien parkazinorako, neure mantxak garbietako, neure kulpen emiendarako, da neure kostunbre deungak mudetarako: Alan itxaraiten dot Jaun piedadez betea, da gaurrik ofrezietan dodaz

zeure serbizio santuan, neure bioza, arimea, potenziak, da sentidu guztiak.

KONFESINOA

Ni bekatariau, konfesetan naiako Jaungoiko guztiz poderosoari, Santa Maria beti Birjineari, San Migel Arkanjeluari, San Juan Bauptisteari, San Pedro, da San Pablo Aprostuai, Santu guztiai, da zeuri Aita espirituaorri, zegaiti egineban pekatu grabemente pensamentuagaz, berbeagaz, da obreagaz, Jauna enea da errua, enea da errua, enea da erru guztia; Da onegaiti erregutu-ten deusat Santa Maria beti Birjineari, San Migel Arkanjeluari, San Juan Bauptisteari, San Pedro, da San Pablo Aprostuai, Santu guztiai, da zeuri Aita espiritualorri erregutu deiozula neugaiti Jaungoikoari. Amen Jesus.

AKTO KONTRIZINOKOA

Neure Jesu-Kristo Jauna, Jaungoiko, da Gizon egiazkoa, neure Kriadore, da Erredenptorea, izanik zareana, da ametan zaitudazalako bioz guztirik, gauza guztien ganean; Damu dot Jauna, zaitudazalako ofenditu, baia proponietan dot

onerik aurra, ez pekatu geiago egiteko, konfesetarako, da emon deiden penitenzia kunplietako, da zeure ofensako okasino guztietarik apartetako: Ofrezietan deuzudaz Jauna, neure bizizea, obrak, da trabajuak, neure pekatuen parkazinorako, da erregututen nagozuna legez, itxaraiten dot zeure miserikordia andian parkatuko deustazuzala neure pekatuak, emongo deustazula zeure grazia emendetako neure bizibidea. Amen Jesus.

Ad maiorem Gloriam Dei